

**BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
EUSKARA-ELKARTEEN AZPIBATZORDEA**

Batzarraren AKTA.

2017ko martxoaren 2an – 12:00 h

BERTARATUAK

Bilboko Udala

Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)

Marijo Arrieta (Euskarako zuzendariordea)

Euskara-elkarteak

Berbaizu. Karlos González eta Galder Unzalu

Euskaltzaleen Topagunea. Aritza Escandon

Palanka taldea. Jon Iturriaga eta Txema Cadavid

Uztarri. Ainara Aretxabaleta

Ezin etorria aldeztu aurretik adierazi dute

Asapala

Euskal Herrian Euskaraz

Iralako Euskal Txokoa

Lizardi

Zenbat Gara

Zorrotzako euskal txokoa

Idazkaritza teknikoa

Bilbao Metropoli-30. Idoia Postigo

Labayru Fundazioa. Lander Solozabal

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILERAREN (2017-01-27) AKTA ONARTU.

Aurreko bileraren **akta onartu da** aho batez.

2.- LEHENENGO BILERAREN ONDORIOEN LABURPENA.

Labayru Fundazioko Lander Solozabalek azaldu du, etorkizunerako bisioa lortzeko, **hauek izango direla Euskara-elkarteen azpibatzerdearen lana gidatuko duen ardatzak:**

- **Integrazioa**: kultur guztiak biltzeko, elkarbizitzarako tresna, jendea bateratzeko, denok batera, komunikaziorako tresna ...
- **Elkarlana**: ahaleginak, gailurra lortuta, ezinezkoa posible bihurtu ...
- **Nortasuna**: Euskalgintza, tradizioa Bilboko kulturaren, euskararen gaztetasuna, teknologia...
- **Esperientzia positiboa**: euskera disfrutatzeke elkarrekin ...

3.- HELBURUEN PROPOSAMENA

Ondoren, bakarkako eta taldeko dinamika bat egin dugu helburuen eta ekintza zehatzen zerrenda bat osatzeko, aurretik definitutako bisioa lortzeko bidean aurrerapausoak emate aldera. Behin adostuta, parte-hartzaileek lehentasunaren arabera sailkatu dituzte ekintzok, eta honako hau da horren emaitza:

- Aisia- eta kirol-ekintzetan hizkuntza-irizpideak ezarri (10)
- Kalitatezko kultura arloko ekintza gehiago antolatu, prestigioa emateko (9)
- Aisiarekin lotutako eskolatik kanpoko ekintza gehiago antolatu (8)
- Euskara-elkartek lagundu (diru-laguntzak, langileak, baliabideak...) (8)
- Euskaraz ez dakitenentzako (etorkinak, helduak, familiak,...) ekintza gehiago antolatu (6)
- Hizkuntza-paisaian euskara zabaldu (errotuluak, kartelak, aldarmioak, seinaleak...) (6)
- Izen bereziak jartzerakoan euskara hutsezkoak lehenetsi (Adib: Baloreen hiria / Azkuna zentroa) (6)
- Nazioarteko filmak eskaini jatorrizko bertsiotan eta euskarazko azpigituluekin, astero eta areto onetan (BBK) (5)
- Berbalaguna proiektua Bilbo osora zabaldu modu bateratuan (4)
- Esperientzien trukeen aurkezpena egin eta publikoari erakutsi (3)
- Kuadrillategi egitasmoa martxan jarri (2)

- Euskararen aldeko eragileentzako foro iraunkorra sortu (1)
- Bilboko Euskararen agenda sortu (euskarazko ekintza guztiak bertan)

Proposamen hau Aholku Batzorde Orokorrari aurkeztuko zaio, aztertu dezan eta beharrezkoak diren ekarpenak egin ditzan. Eraitza hori hartuta, azpibatzerdeen hurrengo bilerak deituko ditugu Aste Santuko oporren ostean.

Bilbon, 2017ko martxoaren 2an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA